



LEA-ARTIBAI LANDA GARAPENERAKO  
ALKARTEA

Goiko portala 3,  
48270 MARKINA-XEMEIN  
Tf. 94 620 36 11  
Posta e.: leaartibai@leaartibai.org

## XIV. MARKINA-XEMEINGO ZUHAITZ, LANDARE ETA BASERRI TRESNERIEN AZOKA

Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkartearen eta Markina-Xemeingo udalaren eskutik, Markina-Xemeingo udalerrian **Zuhaitz, Landare eta Baserri Tresnerien** azoka ospatuko da datorren otsailaren 14an.

Lea-Artibaiko eskualdean urtean antolatzen den Azoka garrantzitsuenetakoa dugu honako azoka hau. Aurten Giro jator eta herrikoia izango da nagusi berriro ere Markina-Xemeingo kaleetan azoka hau Lea-Artibaiko baserriar zein bizilagunentzat ospakizun gune eta adiskideen topaleku aparta izaten baita.

Otsailak 14an Markina-Xemeineraino gerturako diren azokazaleek urtero bezala, ohiko azokaz gain, Loreak, Zuhaitzak, bonsaiak eta landareak ikusteko eta erosteko aukera izango dute. **Zuhaitz eta Landareen 14 Mintegi egongo dira salmenta gauzatzeko.**

Lea-Artibai eskualdeko baserriko produktuak erosteko aukera ere egongo da. Ekoizleak euren produktuen ezaugarriak eta euren beharraren berri emango diete erosleei aurrez aurre.

Nekazaritza atalean, **8** dira Markina-Xemeinera hurbilduko diren ekoizleak euren produktuen salmenta zuzena egiteko. Azokan aurkituko diren produktuak honako hauek izango dira:



LEA-ARTIBAI LANDA GARAPENERAKO  
ALKARTEA

Goiko portala 3,  
48270 MARKINA-XEMEIN  
Tf. 94 620 36 11  
Posta e.: leaartibai@leaartibai.org

- Ardi gaztadun ekoizle bi.
- Ahuntz gaztadun ekoizle bat.
- Ogia eta gozogintzako ekoizle bi.
- Eztigile bat
- Mermelada eta kontserben ekoizle bat.
- Ahatekietan ekoizle bat.

Bestalde, Ekozain ekologia taldeak taloak eta eskualdeko sagardo zein txakolina saltzen jarriko dituzte. Horrez gain bertaratzen direnek taloak egiten ikasteko aukera izango dute nahiz eta tailerra batez ere umeentzat den.

**Goizeko 10:00etan emango zaio hasiera azokari eta eguerdiko 14:00etararte iraungo du. Aurten ere iaz bezala azokaren kokapena zelaiaren goiko aldean izango da, herriko plazabarrirpean hain zuzen ere.**

Azoka honen antolakuntza aurrera eramateko Markina-Xemeingo udalerrriaren laguntza jasotzen dugu.

Landa Garapenerako Alkartek aipamen berezia egin nahi die antolakuntza aurrera eramateko lan eskerga egiten dute eragile guztiei aurreko egunetan eta bereziki egun horretan egiten duten lanagatik.

Informazio honekin batera, Markina-Xemeingo **Zuhaitz, Landara eta Baserri Tresnerien** azokara etortzeko gonbita helarazi nahi dizuegu. Eguraldiak lagun, egun zoragarria izan dezagun.

**Oharra:** Edozein zalantza argitzeko Lea-Artibai landa Garapenerako Alkartearekin harremanetan jar zaitez.

**Telefonoa:** 94 620 36 11